

2010eko azaroaren 24an, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak ondoko erabagi hau hartu dauka:

**“SANCTI SPIRITUS” ZAHARREN EGOITZAKO HARRERA ZERBITZU KONTRATUAREN PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKO BEHIN BEHINEKO ESLEIPENA**

**Xedea**

“Sancti Spiritus” zaharren egoitzako harrera zerbitzu kontratuaren\_\_prozedura irekiaren bidezko behin behineko esleipena.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2010eko maiatzaren 19an, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko Batzorde Zuzentzaileak izandako batzarrean zaharren egoitzako harrera zerbitzua esleitzeko espedienteari hasiera emotea: prozedura, aurrekontua eta pleguak onartzea erabaki zuen.

Bigarrena: Aitatutako kontratazio prozedura irekia, esleipenaren bidez izan da eta kontratazioan parte hartzeko hiru enpresa aurkeztu dira:

- ATLAS Servicios Empresariales proposamenaren sarrera erregistro data/zbk.: 2010-10-22/ 4381
- SERVIMAX Servicios Generales proposamenaren sarrera erregistro data/zbk.: 2010-10-22/ 4380
- LANTEGI BATUAK FUNDAZIOA proposamenaren sarrera erregistro data/zbk.: 2010-10-21/ 4362

**Argudioak**

Lehenengoa: 2010ko azaroaren 4an epe barruan jasotako proposamenak kontratazio mahiak aztertu ditu, eta enpresen kontratatzeko gaitasuna eta kaudimenaren dokumentazioa aztertu ondoren proposamenetan ikusitako agiri hutsuneak aurkezteko hiru egunetako epea finkatu da

Bigarrena: Hiru eguneko epe hori bete denean, 2010ko azaroaren 9an, kontratazio mahiak eskaintza guztiak onartutako baldintzekin bat datozela konprobatu ondoren, 2010ko azaroaren 17ko data finkatzen du erabaki proposamen teknikoak aurkezteko.

Hirugarrena: Sektore Publikoaren Kontratuaren 30/2007 Legearen 134. Artikuluak xedatutakoa beteaz, eta “Sancti Spiritus” zaharren egoitzako harrera zerbitzu kontratuaren\_\_administrazio-baldintza pleguetan zehazten den moduan, ondorengo esleipen irizpideak ezarri dira:

**3.1.- Eskaintza ekonomikoan hobekuntzak: 60 punturarte baloratuko da.**

**Eskaintza ekonomikoaren moetea gutxitzen dan %0,2ko, puntu batean baloratuko da.**

Enpresen eskaintza ekonomikoa honako hau da:



- ATLAS Servicios Empresariales enpresak aurkeztutako proposamena: 39.661,43.-€/urteko.  
Hau da, 5.408,40.-€tako hobariarekin. 60 puntu lortzen ditu.
- SERVIMAX Servicios Generales enpresak aurkeztutako proposamena: 39.661,00.-€/urteko.  
Hau da, 5.408,82.-€tako hobariarekin. 60 puntu lortzen ditu.
- LANTEGI BATUAK FUNDAZIOAK aurkeztutako proposamena: 39.122,00.-€/urteko. Hau da, 5.947,82.-€tako hobariarekin. 60 puntu lortzen ditu

**3.2.- Zerbitzua gauzatzeko proposamen Teknikoa: Enpresak agiri tekniko baten bidez kontratatu nahi den zerbitzuaren proposamena 30 punturarte baloratuko da.**

- ATLAS Servicios Empresariales enpresak aurkeztutako proposamenak: 10 puntu lortzen ditu.
- SERVIMAX Servicios Generales enpresak aurkeztutako proposamenak: 10 puntu lortzen ditu.
- LANTEGI BATUAK FUNDAZIOAK aurkeztutako proposamenak: 25 puntu lortzen ditu

**3.3.- Zerbitzuaren hobekuntzarako proposamenak: Atal honetan zehaztu diran zerbitzuei buruzko hobekuntzetatik aparte, enpresak agiri tekniko baten aurkezten dauzan bestelako hobekuntza bakoitzagaitik 2 puntu, gehienez 10 puntu (proposamenak zerbitzuren hobekuntzarako izan behar dira).**

- ATLAS Servicios Empresariales enpresak aurkeztutako proposamenak: 0 puntu lortzen ditu.
- SERVIMAX Servicios Generales enpresak aurkeztutako proposamenak: 2 puntu lortzen ditu.
- LANTEGI BATUAK FUNDAZIOAK aurkeztutako proposamenak: 4 puntu lortzen ditu.

Laugarrena: Baldintza pleguetan aurreikusitako hiru irizpidien puntuazioen batuketa egin eta gero, osotara emaitza hau agertzen da:

- ATLAS Servicios Empresariales enpresak aurkeztutako proposamenak: 70 puntu lortzen ditu.
- SERVIMAX Servicios Generales enpresak aurkeztutako proposamenak: 72 puntu lortzen ditu.
- LANTEGI BATUAK FUNDAZIOAK aurkeztutako proposamenak: 89 puntu lortzen ditu.



### **Erabagia**

Aurreko guztia kontuan hartuta, honako hau **ERABAGI DA:**

Lehenengoa: “Sancti Spiritus” zaharren egoitzako harrera zerbitzua emateko zerbitzu kontratua LANTEGI BATUAK FUNDAZIOAri 39.122,00.-€/urteko prezioan (BEZ kanpo) behin-behingo esleitzea. BEZari dagokion zenbatekoa 7.041,96,00 €-koa da, baina Lantegi Batuak Fundazio irabazi asmo gabeko erakunde legez salbuetsita dago zerga honetaz. (kontratua 4 urterako izango da).

Bigarrena: LANTEGI BATUAK FUNDAZIOA, esleipendunari behin-behineko esleipena jakinarazten zaionetik hamabost (15) eguneko epean, behin betiko bermea, 1956,10.-€, Patronatoko diruzaintzan sartu beharko duela jakin arazi

